

Bidaia ez zen erraza izan, okadak eta gogo txarra sentitu zuen, baita lepoko mina ere, kaskoak zuen pisuaren ondorioz. Hala ere Lur planetari 48 bira eman zizkion eta espazioan ibili zen hiru egun horietan bitakora koaderno batean eta ortzi-mugaren argazkiak atera zituen. Argazki horiei esker aurkitu zituzten atmosferako aerosolak.

Bidaian egindako otorduetan, gaizkata eskabetxean eta entsaladilla errusiar sandwich asko jan zituen. Eskabetxearen ondorioz, Lurrera bueltatu eta moduluaren atea zabaltzerakoan, puzker kirats ederra sumatu zuten laguntzaileek.

Kosmonauta izateko gauza asko ikasi eta egin behar izan zituen; horien artean, grabitaterik gabeko hegaldiak, isolamendu-probak, zentrifugagailuan probak, suziriei buruzko teoria, espazio-ontzien ingeniarietza, 120 paraxut jauzi eta ehiza-hegazkinen pilotu-titulua ateratzea.

Hegaldi bakar batean, espazioan denbora gehiago eman zuen amerikar astronauta guztiek batera egindako hegaldietan emandakoa baino.

1963ko ekainaren 16an, 26 urte zituela, kosmonauta arropak jantzi zituen eta, frogak egin ondoren, Vostok 6 suzirian espaziora joan zen.

1937. urtean jaio zen Errusiako erdialdeko herri batean. Txikitatik paraxutista izateko gogoa zuen eta herriko Aeroklubean entrenatu zuen horretarako. Lehenengo saltoa 22 urterekin egin zuen.

2016ko abenduaren 28an, 18 urte zituela, udako soineko labur tiranteduna jantzi, eta, probak egin barik, Lada Niva kohetea martxan jarri eta oporretan joan zen.

Lehenengo emakumea izan zen espaziora joaten. Espazio-bidaia horretan, lur planetari 48 bira eman zizkion hiru egunetan.